

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rosa Narbaiza Erdabide

*Bergara,
Gipuzkoa
(1954)*

Aurkibidea



Biografia



Zubietan jaioa. Ama Usurbilgoa zuen, gaztetan Bergarara joandakoa bizitzera familiarekin; erizaina zen ikasketaz, baina ezkontzean utzi egin zuen. Aita Bergarakoa zen, eta Lasagabaster ehun lantegian egiten zuen lana. Lau neska eta mutil bat ziren. Mariaren Lagundian ikasi zuen, eta ondoren Magisteritza egin zuen Donostian. 1974an bukatu zuen eta Aranzadi ikastolan hasi zen lanean, musika irakasle moduan. Musika-ikasketak ere egin zituen. Bere beste bi ahizpa ere ikastolako irakasleak izan ziren: [Arantzazu](#) eta [Blanca Gotzon Bikuña](#) senarra ere elkarrizketatu dugu.

Zintak

BER-347

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-02
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Emakumeak eta batxilergoa

- **Erref:** BER-347/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Bergarako Mariaren Lagundian ikasi zuen Rosak eta ondoren, Donostian magisteritza eta piano ikasketak egin zituen. Emakume askok egiten zuten batxilergoa eta lan-batxilergoa. Hamaika urterekin hasten ziren.

2. Mojen eskolen euskaraz hitz egitea debekatuta

- **Erref:** BER-347/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Bergarako Mariaren Lagundian debekatuta zegoen euskaraz hitz egitea. Behin moja euskaldun batekin gertatutakoa kontatzen du. Moja euskaldunek diskrezio handiarekin eramaten zuten euskaldunak zirela. Nahiz eta etxean euskaraz egin, lagunekin kalean gaztelaniaz aritzen ziren.

3. Unibertsitatean euskaraz hitz egitea debekatuta

- **Erref:** BER-347/004
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Magisteritza ikasi zuen Donostian, bere ahizparen pausoak jarraituz. Ikasle-egoitza batean bizi zen. Fakultateko zuzendaria euskararen kontra zegoen eta gorrotoa zion. Donostiako giroa oso erdalduna zen.

4. Euskal alfabetatzea ikastolan irakasle izan aurretik

- **Erref:** BER-347/005
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Bergarako ikastolan lanean hasi aurretik, euskaraz alfabetatu behar izan zuen, ikasketak guztiak gaztelaniaz egin zituelako. Don Serafinek lagundu zien berari eta beste bi irakasleri.

5. Manolo Urbietarekin kantuan

- **Erref:** BER-347/006
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:09:54. **Bukatu:** 00:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Zarauzko ikastolan Manolo Urbietak bidaiak antolatzen zituen hurrekin kantaldiak egiteko. Rosa begirale bezala aritu zen eta euskaraz alfabetatzeko aukera gehiago izan zuen. Bidaietan zer egiten zuten kontaktzen du. Rosak uste du euskal musikako bere hastapenak hor hasi zirela. Euskal kanta klasikoak abesten zituzten.

6. Angel Cabanas; Migel Gonzalez Bastida; Telesforo Monzon

- **Erref:** BER-347/007
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:12:42. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Mojetan hasi zen pianoa jotzen eta gero Donostian, Angel Cabanas piano jolearekin jarraitu zuen ikasten. Migel Gonzalez Bastida musikari bergararrari buruz hitz egiten du. Telesforo Monzoni buruz hitz egiten du. Euskaltzale amorratua zen eta euskal kantagintzan parte hartu zuen.

7. Musika ikasketak

- **Erref:** BER-347/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Musikako ikasketak nolakoak ziren kontaktzen du Rosak.

8. Bergarako ikastolako lehenengo musika irakaslea

- **Erref:** BER-347/010
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:21. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

1974an hasi zen Rosa Bergarako ikastolan lanean. Orduan ez zen musika ematen eta metodorik ez zegoenez, berak berea sortu zuen euskal kantutegia ardatz hartuta. Lupe Olabarriak ere euskal kanta irakasten zituen astean behin ikastolan.

9. Bergarako ikastolaren sorrera

- **Erref:** BER-347/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:20:21. **Bukatu:** 00:23:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bergarako Ikastolaren aurrekariak eta sorrera kontatzen du Rosak. Dominikoeak asko lagundu zuten. Pozik joaten ziren ikastaroak egitera Arrasatera, Iruñera...</p>

10. Irakasleen artean materialak sortzen

- **Erref:** BER-347/014
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Irakasleen artean oso giro ona zegoen. Ez zeukaten euskarazko testurik ez materialik eta askotan geratzen ziren hauek prestatzeko. Iturri ezberdinetatik materiala lortzen saiatzen ziren eta Fernando Etxeberriak asko lagundu zien. Txomin Amasorrainek testuak euskaratzen laguntzen zuen ere.

11. Musika irakaslea Bergarako ikastolan

- **Erref:** BER-347/015
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Rosa 1974. urtean hasi zen lanean Bergarako ikastolan lanean. Irakaskuntza orokorrarekin hasi zen eta gero musika irakasten hasi zen, nahiz eta biak uztartu dituen. Musikako irakasgaiak zer ematen zuen azaltzen du.</p>

12. Euskal kantutegia curriculum pedagogikoaren ardatz

- **Erref:** BER-347/016
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:28:32. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika irakasteko curriculuma sortzeko, euskal kantutegia erabiltzen zuen Rosak ardatz moduan. Erabiltzen zituen iturriak aipatzen ditu: Azkue, Aita Donostia, Riezu, Manolo Urbieta...

13. Manolo Urbieta musikaria

- **Erref:** BER-347/017
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:31:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Manolo Urbietari buruz hitz egiten du Rosak: nor zen, zergatik izan den garrantzitsua... Musika haurrengana hurbiltzeko erabiltzen zuen. Rosak Urbietaren kanta famatuetakoz batzuk abesten ditu.

14. Bergarako ikastolako hasierak: andereñoak

- **Erref:** BER-347/018
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:31:17. **Bukatu:** 00:34:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bergarako ikastolaren hasieran, irakasle eta ikasleak familia bat bezala ziren. Gurasoekin ere harreman eta errespetu handia zegoen. Hasierako andereñoak eta dominikoez hitz egiten du Rosak.

15. Bergarako Ikastolarentzat diru-bilketak

- **Erref:** BER-347/019
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:34:44. **Bukatu:** 00:37:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolarentzat dirua jasotzeko denetik egiten zuten: zozketak, taberna, jaialdiak, kontzertuak...

16. Bergarako Ikastola eta Santa Ageda

- **Erref:** BER-347/020
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:37:03. **Bukatu:** 00:40:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Santa Agedetan eskean joaten ziren ikastolatik hurrekin. Bergaran ez zen inon gehiago egiten. Santa eskerako kantak abesten ditu Rosak.

17. Bergarako ikastola eta Gabonetako kantak

- **Erref:** BER-347/022
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:41:23. **Bukatu:** 00:43:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Gabonetako kantak erakusten zituzten ikastolan. Kantu gutxirekin hasi ziren, baina errepertorioa handitzen joan ziren. Abesti batzuk kantatzen ditu.

18. Bergarako ikastola eta inauteriak

- **Erref:** BER-347/023
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:43:44. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Urte askoan ez ziren inauteriak ospatu eta ikastolatik janzten eta irteten hasi ziren. Horrela, herritarrak animatu ziren eta herri guztira zabaldu zen. Urte batzuen ondoren, euskal inauteriak ospatzen hasi ziren.

19. Haurren eguna Bergarako ikastolan

- **Erref:** BER-347/024
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:45:08. **Bukatu:** 00:47:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Herri askotan haurren eguna ospatzen hasi ziren euskal dantzak sustatzeko. Igandero ospatzen ziren udaberriari eta haur, irakasle eta gazte boluntario talde bat ibiltzen ziren herriz-herri.

20. Ikastola, frankismoaren jopuntuan

- **Erref:** BER-347/025
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:50:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Franco hil aurretik, ikastolarekin zerikusia zutenak jopuntuan zeuden. Guardia Zibila ikastolara joan zenekoa kontaktzen du.

21. Francoren heriotza ospatzen

- **Erref:** BER-347/027
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:50:28. **Bukatu:** 00:51:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Rosaren etxean Francoren heriotzaren berri nola jakin zuten kontaktzen du. Ikastolan jai giro handia egon zen.

22. Ikurrinaren ilegalizazioaren bukaera

- **Erref:** BER-347/028
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:51:27. **Bukatu:** 00:54:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

1977. urtean ikurrina legalizatu zen eta Bergaran ospakizun handiko eguna izan zen. Donostia ikurrinaz beteta zegoela kontaktzen du Rosak. Lehenengo euskalduna Everestera heldu zenean, ikastolan ospatu zuten.

23. Abesbatzetan parte hartzen: orfeoia, Bergarako Aritzeta...

- **Erref:** BER-347/032
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:55:00. **Bukatu:** 00:58:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Herriko ekimen ezberdinetan ibilia da Rosa: euskal dantzetan, musika eskolan, Aritzeta Abesbatzan... Gaur egun, Bergarako parrokiako abesbatzaren zuzendaria da. Orfeoian ere ibili da.

24. Migel Gonzalez Bastida musikari bergararra

- **Erref:** BER-347/034
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:58:26. **Bukatu:** 01:00:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Migel Gonzalez Bastida musikari bergararri buruz hitz egiten du Rosak. Migelek beti sartzen zuen bere erreperitorioan euskal kantaren bat. Garai haietan ez zen gauza erraza, baina bai berak eta bai bere aitak, egiten zuten.

25. Frankismoko hezkuntza-ikuskatzailea Bergarako Ikastolan

- **Erref:** BER-347/036
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 01:00:47. **Bukatu:** 01:03:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Manolo Urbietari buruz hitz egiten du. Behin Bergarako ikastolara hezkuntza-ikuskatzailea joan eta gaztelaniaz egin zien ikasleei. Hauen erantzuna zein izan zen kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com